

Liburuak

KRITIKA

Bränskintgo zubia

Helduen literatura

Gema Lasarte

GOIZALDE LANDABASOK hitzez eta Aritz Eigurenek marrazkiz eraiki berri dute Bränskint hiria: eleen eta irudien arteko solasaldian zabalduetako hiri zaharra. Hitzek esaten ez dutena irudiek diote eta irudiak antzu balira, biak batera eta uztarturik, ulerbide dirateke, izan ere, sortze lan hau marrazki eta letren arteko harmonian tenkatzen baita.

Hiri hotza irudikatu digute, itxaropen gorria sarbidean, kale elurtuetan putak, bortxaketak, eska-leak, bakardadea, zaborrak, heriotzak, hip-hop erritmoan drogak, zubigaineko eta zubipeko pertsonaiak. Eta haien arteko solasak, begiradak, miseriaren begirada lohi eta bihurriak. Paisaiak. Txuribeltzean atondutako paisaia elurtuak, hotzak lurrundutako hitzak.

Hasierako irudiak ere halaxe dira, hotzaren txuri grisak eta erdian gorria. Aurreratu ahala irudien puzzleak eta tonuak irekitzen dira eta tonuz aldatzen doaz kolorea hartzeraino. Marrazki festa horretan trazu oso finak gailentzen dira, minimalistak



Bränskint.
Goizalde Landabaso.
Txalaparta.
104 orrialde.
17,5 euro.

lirudikete, eta beste batzuk ordea orrialde osoa hariturik espazio hanpatuaren euskarri bilakatzen dira. Marrazkiak oso diferenteak dira, estiloz nahiz tonoz, hiriaren antolaketa honetan Aritz Eigurenek eskaini dizkigunak.

Landabasok mikroipuinak marraztu ditu, dosi txikietan irakurtzeko, hiria baldosaz baldosa egina dagoelako eta bizitza segundo bat baino ez delako. Bränskint oso gertu dagoen hiri sentitzen dugu, hotza eta bakarra, noraezean irudika dezakeguna. Liburuaren azalak berak aurreratzen digu poesiaz kargaturiko Carrefour edota Eroskiko karrotxoa, edozein eskalaren etxe edo aterpea izan litekeena. Etxe mugikorak harantz eta honantz dabilzanak, miseria bidaide. Bränskintaren psikiatrek ez dakite zorionarekin zer egin. Baina hotzaren isotopia lagun, hiri honetan ere bada Eguzki amandrerik, nahiz eta 226 egun behar izan laino beltzen indarra gainditzeko.

Egin dugu Bränskinterako bidaia, hantxe gozatu dugu mikronarrazioen erritmo bizia, hantxe sumatu dugu hitzen eta irudien arteko ezkontzari darion poesia. Eta idazle eta irakurlearen artean marrazkilariak zubiak marraztu ditu. Eguraldi makurrarekin era konpultsiboan. Etxe aurreko zubia lehenengoa. Unibertsitatera bidean dagoena, azkena. Ikusleenganako zubirik, baina, ez du aurkitzen. Eta zuk, irakurle, topatu al duzu komunikazio ariketa honetan Bränskintik zureraino sartzen den zubi zuri-beltzik? ■



denboraldi berria 2011 / 2012

2011.10.07 OSTIRALA

17:30 Performance **Esther Ferrer**. Doako jarduera. Toki mugatua

2011.10.08 LARUNBATA

11:00 Erakusketak jendearentzako zabalik

12:00 **LAU MUGIMENDUTAN**. Esther Ferrer artistaren eta Rosa Olivares komisarioaren arteko elkarriketa

20:00 Eraskusketen inaugurazioa

LAU MUGIMENDUTAN. ESTHER FERRER**PAPEROPHANIES**. JENNY MARKETOU. PRAXIS**EGONALDIAK**. ARTIUM Bildumaren inguruko lehengoratze jarduerak**ARGIA BARRURA**. CARMELO ORTIZ DE ELGEA, JOSÉ LUIS ZUMETA22:00 Kontzertua **THE BRONTËS**. Doako jarduera. Toki mugatua
Artium

 Vitoria-Gasteiz
www.artium.org